

VULTOURIS IBILBIDEA: Burgiko arroila (Nafarroa)

ZAILTASUNA:
ERRAZA



Burgiko arroila, Erronkari ibarrean, Ezka ibaiak Illon eta Peña mendien artean landutako zintzur bat da.

Hariztiak eta karraskal motako artadiak dira nagusi eremu horretan, beste espezie batzuekin batera betiere. Baso horretan bizi diren ugaztunen atean, besteak beste, lepazuria eta basakatua daude. Hegazti-komunitatea oso oparoa da, bai bariatatean, bai kopuruan. Erraza da sai zuria ikustea, eta eremuan Nafarroa osoko sai arreen kolonia nagusietako bat bizi da.



Bada arroila zeharkatzen duen ibilbide bat, eta horren bukaeran behatoki bat aurkituko dugu; hortik hegaztiak ikusteko aukera izanen dugu, molestatu eta molestatuak izan gabe. Burgiko zubian hasten da, eskuin-alderantz igotzen den pista batetik; bidea behar bezala seinaleztatua dago, ibilbidearen panel bat eta baliza urdin-gorriak jarrita.

IBILBIDEAREN FITXATEGIA



Ibilbidearen distantzia: 0,95 km
Gutxieneko altituda: 613 m
Gehieneko altituda: 633 m
Gehieneko desnibela: 20 m

Centro de Interpretación de la Naturaleza de Roncal
31415 RONCAL (Navarra)
Tel.: (+34) 948 475 256
it.roncal@navarra.es

<http://es.wikiloc.com/wikiloc/view.do?id=1686629>
Argibide gehiago: www.vultouris.net · info@vultouris.net

Erdi Aroko elurzulora heldu ondoren eskuinaldeko bidexka hartuko dugu, arroilaren barnealdera eramanez gaituena; bideak gora egiten du pixkana-pixkana, pinu eta ezpelen artean, behatoki-raino; bertan habitat horretan bizi ohi diren hegaztien siluetak agertzen dituzten panelak aurkituko ditugu. Bide beretik itzuliko gara.